


# Gaztelera/espainola



**ANE ABLANEDO LARRION**  
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

**J**okabide politikoan ideologiak duen garrantziaren jakitun, arreta berezia jarri behar genioke euskaldunok geure ideologiaren gaiari, kokaleku ideologiko zehatz baten markoan erabakitzen delako beti zer egin, zer ez, nola, norekin, noren kontra, eta abar. Jokoa duguna hain funtsezkoa izanik, eta gure artean menderatzaileen aldeko ideologia barreiatzeko ezarria dagoen makina mediatico guztia ezagututa, oso kontuz ibili beharko genuke, gu tontotzea eta itsutzea delako beren arrakastaren baldintzetako bat, ez ahaztu.

Euskaldunon ideologiaren oinarrian, pairatzen dugun gatazkaren irakurketa egokiak egon behar luke, eta horretan, noski, funtsezko funtzioa dauka terminologia ongi erabiltzeak. Gertatzen zaiguna nola izendatzen dugun gure mundu ikuskeraren sintoma da, baina horrez gain, mundu ikuskera horren konfigurazioan berean eragiten du, zentzu zirkularrean.

Begira zer ezberdina den, adibidez, gurea *estaturik gabeko nazioa* dela esatea, edo geure burua *estatu okupatu* baten gisa aurkeztea. Lehenak, Espainia eta Frantzia barneko arazo gisa planteatzen du afera, eta nahia edo pretentsioaren mailan kokatzen du. Bigarrenak, ordea,

nazioarte mailako kualifikazioa ematen dio auziari, desjabetua izan den baina jabetza errekuperatu nahi duenaren tokian jarriz Euskal Herria. A zer ezberdina, ezta?

Ildo beretik, ez da gauza bera 1936koari *Gerra Zibila* deitzea, edo guretzat izan zen *konkista-gerra* gisa izendatzea. Eta aldea dago, era berean, nazionalista/eznazionalista dikotomia faltsua onartzearen, eta beharko lukeen espainol-frantses/euskaldun-aren artean. Zer esanik ez, ezin da konparatu hemen indarrean dugun erregimenari *demokrazia* deitzea –defizitarioa, baina demokrazia–, moztututako *inperialismoa* esatearekin.

Oraingoan, hain hedatuta dagoen *gaztelania* hitzaren erabilerari heldu nahi nioke, gure kokaleku ideologiko okerraren adierazgarri delako, eta hizkuntzaren aferari egoki heltzeko gure argitasuna bereziki eragozten duelako. Espainiako hizkuntzari *espainola* deitu behar zaio, eta ez *gaztelera*, horretarako arrazoia espainolek berek ematen digute, gainera, beren hizkuntzari *gaztelera* deitzea justifikatzeko darabilten argudiaketarekin berarekin. Espainiar hizkuntza diren guztien artean –euskara, galegoa eta katalana hor sartuta, bistan

denez– ez dela bakar bat besteen gainean hobetsi behar, besteak gutxiestea litzatekeelako. Hau da, *gaztelera* erabiltzen dute, euskarari espainol hizkuntza izatearen ohorea emateagatik. Arrazoi gehiago behar ote duzue?

*Gaztelera*, noski, inperioaren lurraldeko barne kontsumorako baino erabiltzen ez duten terminoa da, kanpora begira *espainol* izendatzen dutelako beti, logikoa den bezala. Hiztegieta oso ongi ikusten da hori, *gaztelera-euskara* jartzen dute, edo *gaztelera-katalana*, baina sekula ez *gaztelera-ingelesa*, *espainol-ingelesa* baidzik. *Espainol-euskara* esatea, euskara espainola ez dela onartzea bezala litzateke, eta hori ez zaie komeni, gure mendekotasuna bilatzen duen ideologia horren kontra bailihoake.

Hemengo abertzaleek *gaztelera* hitza erabili nahi izatearen arrazoiak ulertu egin daitezke, alde humano batetik bederen, ulergarria delako inperio baten hizkuntzan mintzo zarela onartu nahi ez izatea. *Gaztelera* hitzarekin kontua goxatu egiten da, gure mendeko-kolonizatu izaera minimizatu egiten delako, eta kamuflatu. Baina, ez al genuke, hain zuzen ere horregatik, ohitura hori behingoz aldatu behar? ●